

Eibar berrasmutzen, c. 1700-2016: euskal industria-hiri baten erresilientzia eta bilakaera

*Ekonomialari Euskaldunen I. Biltzarra
Donostian, 2019ko azaroaren 14an*

Igor Etxabe Iruretagoiena

Igor Goñi Mendizabal

Jesús M. Valdaliso

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisisa

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak



❑ HIRIAK EKONOMIAN:

- ❑ 1990ko hamarkadaz geroztik, hiriek herrialdeko ekonomian duten papera aztertzea xede duten ikerketa-lan ugari plazaratu dira (Porter, 1990; Krugman, 1991; Glaeser, 1998 eta 2003), hainbat ezagutza eremutan (Demografia, Geografia Ekonomikoa, Urbanismoa, etab.).
- ❑ Ekonomia Historian ere gero eta ikerlari gehiagok aldarrikatzen dute ikuspegi lokalago baten beharra. Izan ere:
 - Lurraldetasunak hurbilketa osagarri bat eskaini dezake, perspektiba historiko batetik industrializazioa hobeto ulertzeko (Etxabe, 2018).
 - Tokian tokiko ekoizpen-sistemen azterketek, udalerriz gaindiko dimentsio batetik egiten diren analisiek izan ditzaketan gabeziak estaltzen lagundu dezakete (Parejo, 2006).
 - Hiriak eta eskualdeak askotan aitzindariak dira teknologian, antolakuntzan eta merkataritzan gertatutako berrikuntzak xurgatzen, eta arreta handiagoa eskaini behar zaie (Rubio eta Garrués, 2017).

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak


Epe-luzeko
analisisa

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

☐ ERRESILIENTZIA:

- ☐ Azkenaldian, kontzeptu honek ere akademiako esparru berrien interesa erakarri du, ekonomia sistema batek jasan ditzakeen etenaldiak (hondamendi naturalak, finantza-krisiak...) eta hauek eragindako ondorioak ulertzeko (Martin, 2011).
- ☐ Erresilientzia zera da: lurralde batek shock edo krisi bati eusteko, erantzuteko edo/eta honen eraginetara egokitzeko duen gaitasuna (Martin, 2012).
- ☐ Egokitzea vs. moldagarritasuna: hazkunde aukera berrietara bideratu gaitzakete (Boschma, 2015).
- ☐ Evenhusek (2017) 3 motatako asaldurak bereizten ditu:
 1. larrialdiak (egokitzea)
 2. gorabehera makroekonomikoak (egokitzea)
 3. aldaketa estrukturalak (moldagarritasuna)



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak


Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

ERRESILIENTZIA:

Fenomeno konplexua da:

- dinamikoa eta bidearen araberakoa (*path-dependent*): ikuspegi ebolutibo bat eskatzen du (Martin eta Sunley, 2006).
- eragile anitzekoa: aktoreak elkarreragintzan aztertu behar dira, maila desberdinetan (Bristow eta Healy, 2014).
- ezin da bere horretan behatu, baizik eta adierazle ekonomiko nagusietatik ondorioztatu behar da (Evenhuis, 2017).
- faktore esplikatzaileak (Evenhuis, 2017):
 - oinarri ekonomikoa
 - teknologia eta ezagutza oinarriak
 - lan merkatua
 - eraikitako ingurunea
 - antolaketa instituzionala
 - nortasunaren sorkuntza eta politikak



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia


Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

☐ HELBURUAK:

- ☐ Eibarri buruz epe-luzeko kasu azterketa bat burutzea:
 - hiria kolpatu duten shock edo etenaldi nagusiak identifikatuz
 - tokiko eragileek emandako erantzunak eta asaldura horietara egokitzeko martxan jarritako mekanismoak aztertuz
 - ekonomia egituran eta erresilientzia gaitasunean izandako eragina ebaluatuz

- ☐ Mota honetako azterketak egiteko metodologia bat fintzea eta Euskal Herri mailan eskura ditugun informazio iturriak esploratzea.



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

☐ METODOLOGIA:

☐ Prozesu analitikoa:

- Etenaldiak identifikatzea
- Etenaldien arteko etapak hasieratik bukaerara aztertzea
- Epe-luzeko sekuentzia osoaren analisia

☐ Ikuspegi mikro bat darabilgu, informazio kualitatibo eta kuantitatiboaren nahasketa batean oinarrituta.

☐ Iturriak:

- INE
- Eustat
- Artxiboko informazioa:
 - Eibarko udaletxea
 - Armeria Eskola
 - Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa)
 - Merkataritza Erregistroa (Donostia)



Atal teorikoa

Helburuak


Metodologia eta iturriak

Epe-luzeko analisia

Mekanismoak eta eragileak

Ondorioak

1. grafikoa: Eibarko biztanleria c. 1750-2016



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak


Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 1. ETAPA: Eibar 1794a baino lehen: su-armak Errege Etxearentzat ekoizten zituen herria

- ❑ Baliabide naturalak bailaran: indar hidraulikoa, burdina eta egurrikatza.
- ❑ Gremioen oinarri sendoa Erdi Arotik.
- ❑ 1573az geroztik, su-armen Errege Fabrika Soraluzen.
- ❑ Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiaren bitartekaritza.
- ❑ Ekoizpenaren espezializazioa herri txiki eta ertainetan:
 - Arrasate: sarrailagintza
 - Eibar: su-armak
 - Mutriku: kontserbak
 - Bergara: oihaigintza
 - Deba: untzigintza
- ❑ Eskualdeko migrazioa kualifikatutako lanesku faltak eraginda.



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

- ❑ **1. ETAPA:** Eibar 1794a baino lehen: su-armak Errege Etxearentzat ekoizten zituen herria



1. taula: Gremio bakoitzeko langile kopurua, herriz herri (1790)

	Soraluze	Eibar	Elgoibar	Ermua	Arrasate	Durango	Bergara	Guztira
Kanoigileak	99	81	117	-	45	-	-	342
Txispalariak	198	21	6	48	3	9	6	291
Aparejuginak	40	88	-	2	-	-	-	130
Kaxaginak	48	78	1	2	1	-	-	130
Guztira	385	268	124	52	49	9	6	893
%	%43	%30	%14	%6	%5,50	%1	%0,50	100

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 2. ETAPA: Su-armak ekoizten zituen herria, trantsizioan (1794-c. 1876)



ASALDURA	<ul style="list-style-type: none">▪ Konbentzio Gerran (1793-94), frantziar soldaduek Eibarri su eman zioten (1)▪ Errege Etxeak Asturiasen arma fabrika berri bat sortzea erabaki zuen (1)
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none">▪ 12 pertsona hil ziren▪ Udaletxea, ospitalea, umeen eskola eta elizaren zati bat erreta geratu ziren, 116 etxebizitza eta hainbat tailerrekin batera
EGOKITZEA	<ul style="list-style-type: none">▪ Kanpoan bizi ziren eibartarren diru-laguntzak▪ Ondasun publikoen eta lur komunalen salmenta▪ Pistolen eta eskopeten eskariaren igoera, zibilen partetik▪ Eibarko armaginek Madrilgo eliteekin gauzatutako kontaktuak▪ Ekoizpen militarren liberalizazioa 1860an▪ Espainiako gobernuak agindutako muga-zergen aldaketa, barrualdetik kostara
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none">▪ Lehen su-arma fabrika handiak sortu ziren: Orbea Hermanos (1840) eta G.A.C. (1860)

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

2. ETAPA: Su-armak ekoizten zituen herria, trantsizioan (1794-c. 1876)



2. taula: 15-64 urte bitarteko eibartarren lanbideak (1860)

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
Etxekoandreak	0	%0,00	503	%62,33
Artisauak	395	%47,71	2	%0,25
Jostunak	0	%0,00	4	%0,50
Eliteak	18	%2,17	9	%1,12
Eskola-umeak	0	%0,00	1	%0,12
Ikasleak	3	%0,36	0	%0,00
Jornaleroak	65	%7,85	1	%0,12
Jubilatuak	17	%2,05	0	%0,00
Nekazariak	260	%31,40	120	%14,87
Liberalak	11	%1,33	32	%3,97
Behartsuak	3	%0,36	9	%1,12
Zerbitzuak	11	%1,33	4	%0,50
Morroiak	28	%3,38	76	%9,42
Sailkatu gabe	17	%2,05	46	%5,70
GUZTIRA	828	%100,00	807	%100,00

Atal teorikoa

Helburuak


Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 3. ETAPA: Arma ekoizpeneko distritu baten garapena (c. 1876-1918)



ASALDURA	<ul style="list-style-type: none">▪ Eibar karlistek hartu zuten Hirugarren Gerra Karlistan (1872-76) (1)
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none">▪ 200 milizianok baino gehiagok ihes egin behar izan zuten, haietako asko armaginak▪ Su-armen industriako azpiegitura batzuk berariaz suntsitu zituzten▪ Estatuaren eskaria desagertu zen
EGOKITZEA	<ul style="list-style-type: none">▪ Zibilen merkatura zuzendutako ekoizpenean espezializazioa▪ Ezagutza inportazioak, atzerriko pistolen imitazio merkeak saltzeko▪ Azpiegitura hobekuntzak: telegrafoa, trenbidea, elektrifikazioa▪ Armeria Eskola
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none">▪ Arma ekoizpeneko distritua▪ Esportazioetara bideratutako hazkundera: 1900an %90etik gora esportatzen zen

Atal teorikoa

Helburuak


Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia


Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

3. ETAPA: Arma ekoizpeneko distritu baten garapena (c. 1876-1918)



2. grafikoa: Alfabetatuen %, 0 urtetik aurrerako pertsonetan (1860-1960)



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 4. ETAPA: Industria-distritu handiago baten tailerra (1918-1936)



ASALDURA	<ul style="list-style-type: none">▪ Kanpo- eta barne-eskariak hondoratzea IMG amaitzean (3)▪ Su-armen inguruko legedi aldaketa (1)▪ Inportazioak ordezkatzeko industrializazioa (2)
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none">▪ 1921an, langileen %60 langabezian zegoen, eta %20ak lanaldi murriztua zuen
EGOKITZEA/ MOLDAGARRI- TASUNA	<ul style="list-style-type: none">▪ Erlazionatutako dibertsifikazio prozesua<ul style="list-style-type: none">- bizikletak- josteko makinak- bizar-xaflak▪ Su-arma konkretu batzuetan burututako espezializazioa<ul style="list-style-type: none">- ehizerako eskopetak- armadarentzako pistolak▪ Froga Banku Ofiziala ireki zen 1923an
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none">▪ Euskal Herriko lehen industria kooperatiben sorrera

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 5. ETAPA: Tailer-hiria ereduaren mugak (1936-1977)



ASALDURA	<ul style="list-style-type: none">▪ Gerra Zibilaren baitan, Eibar Francoren armadak bonbardatua izan zen 1937ko apirilean, eta soldadu talde batek eraikin batzuk erre zituen (1)▪ Arma ekoizpenaren legedi aldaketa (1)▪ Francoren diktadurapean jazotako autarkia ekonomikoa (1)
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none">▪ 70 pertsonatik gora hil ziren eta ia 100 zauritu
EGOKITZEA	<ul style="list-style-type: none">▪ Hiriaren berreraikuntza▪ Eibarko tailer gehienak Bizkaiko beste herri batzuetara lekualdatu ziren▪ Industria sektore berriak agertu ziren<ul style="list-style-type: none">- erlazionatutako aniztasuna: automobilgintza, makina-erraminta, etxetresnak...- erlazionatu gabeko aniztasuna: aisialdia, garraioak...▪ Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren sorrera 1968an
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none">▪ Ongizate altua eta eztanda demografikoa

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia


Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

5. ETAPA: Tailer-hiria ereduaren mugak (1936-1977)



3. grafikoa: Deba bailarako biztanleria (1750-2017)



Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

❑ 6. ETAPA: Eskualde produktibo baten hiriburua (1977-)



ASALDURA	<ul style="list-style-type: none">▪ Petrolioaren krisia 1970ko hamarkadan (2)▪ Industria exodoa (1)
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none">▪ Enpresa asko itxi ziren▪ Beste batzuk Eibar utzi eta beste kokaleku bat topatu zuten
EGOKITZEA	<ul style="list-style-type: none">▪ Franco hil ondoren osatutako gobernu-organoak esportazioak, nazioartekotzea eta ekintzailetasuna bultzatzen saiatu ziren▪ Europako merkatuekin integrazioa▪ 90ko hamarkadatik, desindustrializazioa eta tertziarizazioa<ul style="list-style-type: none">- Merkataritza eta administrazio ardatz garrantzitsua- Ezagutza intentsiboko elkarten bilgune: Tekniker, UEU
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none">▪ Industriatik eratorritako jarduerak oraindik garrantzitsuak dira▪ <i>Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria</i> saria 2018an

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisiak

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak

6. ETAPA: Eskualde produktibo baten hiriburua (1977-)



3. taula: Eibarko biztanleria landunaren banaketa, sektoreka (1981-2016)

	1981		2001		2016	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Nekazaritza, abeltzantza eta arrantza	91	0,8	52	0,4	45	0,4
Industria	7.959	67,3	5.245	44,7	3.436	31,8
Eraikuntza	325	2,7	684	5,8	401	3,8
Zerbitzuak	3.444	29,1	5.752	49,0	6.888	64,0
Guztira	11.824	100,0	11.744	100,0	10.770	100,0

Atal teorikoa


Helburuak

Metodologia eta iturriak

Epe-luzeko analisia


Mekanismoak eta eragileak

Ondorioak



4. taula: Egokitze eta erresilientziarako mekanismoak

DOMEINUA	MEKANISMOAK	1794-1876	1876-1918	1918-1936	1936-1977	1977-
Oinarri ekonomikoa	Ekonomia egituraren dibertsitatea	-	-	-	+	+
	Erlazionatutako aniztasuna	0	0	+	+	+
	Tamaina (aglomerazio ekonomiak)	0	+	+	+	+
	Sektore publikoaren garrantzia	+	0	0	0	0
	Finantza-sistema eta baliabideak	0	0	0	0	0
Teknologia eta ezagutza oinarria	Teknologia intentsiboko jarduerak eta zerbitzuak tokian tokiko ekonomian	0	0	0	0	+
	Hornitzaile, bezero eta bestelako interesdunekin harremanak	0	+	+	+	+
Lan merkatua	Giza-kapitala	+	+	+	+	+
	Gaitasunekin erlazionatutako lan aukerak	0	+	+	+	+
Eraikitako ingurunea	Azpiegitura, espazioak	0	+	+	-	-
Antolaketa instituzionala	Eragile gakoen arteko koordinazioa, gobernanzarako mekanismoak, lidergoa	+	+	+	+	+
	Kultura eta balio partekatuak, kapital soziala	+	+	+	+	+
Nortasunaren sorkuntza eta politikak	Adimen estrategikoa, iraganeko narratibak, etorkizuneko ikuspegiak	0	+	+	+	+
	Gobernu-politikak (maila desberdinetan)	+	+	+	+	+



5. taula: Egokitze eta erresilientziarako eragile nagusiak

ERAGILEAK	1794-1876	1876-1918	1918-1936	1936-1977	1977-
Enpresak	Orbea, GAC	Orbea Hnos., GAC, V. Sarasqueta, ALFA, Aurrera	Orbea Hnos., GAC, ALFA, BH, STAR	ALFA, BH, GAC, Orbea, Lambretta, AYA, Solac, Ufesa	ALFA, ABC Compresores, El Casco, BOJ
Gobernantza	Udaletxea, Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) Madrilgo gobernua,	Udaletxea, Gipuzkoako Aldundia (GA), Madrilgo gobernua	Udaletxea, GA, Madrilgo gobernua	Udaletxea, GA, Madrilgo gobernua	Udaletxea, GFA, Eusko Jaurlaritza Debegesa, Debabarrena
Hezkuntza- eta teknologia zentruak	Marrazketa eskola	Marrazketa eskola, Armeria Eskola	Armeria Eskola	Armeria Eskola, EHU	Armeria Eskola, EHU, Tekniker, UEU
Enpresa elkarteak	Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (1764)	Enpresaburuen elkarte	Enpresaburuen Elkarte, Armaginen Ganbara, Industria eta Merkataritza sustapena	Armaginen elkarte, Gipuzkoako Merkataritza Ganbara	Armaginen elkarte, ADEGI, BNI Armagin Eibar
Langile elkarteak	Gremioak	Artisau elkarteak	Burdingintzako sindikatua (UGT), SOV	Sindikatu bertikalak	Sindikatuak
Norbanakoak	I. M. Ibarzabal, P. Zuloaga, M. Garate	F. Calbetón, P. Alzola, A. Amuategui	J. Usabiaga, J. Echeverría, T. Echevarría	E. Orbea, I. Ojanguren, J. San Martín	I. Goenaga, L. A. Aranberri <i>Amatiño</i>

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia eta iturriak

Epe-luzeko analisia

Mekanismoak eta eragileak

Ondorioak

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak



❑ ONDORIOAK:

- ❑ Eibar gai izan da bere burua hainbat alditan berrasmatzeko, teknologian, industria antolaketan edo merkatuan egon diren aldaketei erantzunez.
- ❑ Bere erresilientzia gaitasuna konbinazio baten ondorio da:
 - giza kapital kualifikatua
 - armaginen ekoizpen-gaitasun altua & Armeria Eskolaren ekarpena
 - gaitasunei lotutako dibertsifikazio aukerak
 - Eibar fabrika gisa: hornitzaile eta bezeroekiko hurbiltasuna
 - eragileen arteko koordinazio eraginkorra
 - hasieran, armaginak bitartekari gisa aritzen ziren Madrilen
 - geroxeago, udaletxeak herritarren eskariak ederki bideratu zituen
 - 1978tik aurrera, Eusko Jaurlaritza eta tokian tokiko agentzien bidez
 - elkarte desberdinen (formalak eta informalak) arteko sare sozial mardula
 - bertako nortasun indartsua, bereziki ekintzailetasunean eta lankidetzan oinarritua eta hainbat istorio eta narratiben bitartez zabaldua.

Atal teorikoa

Helburuak

Metodologia
eta iturriak

Epe-luzeko
analisia

Mekanismoak
eta eragileak

Ondorioak



MUGAK:

- Aztertutako gaiaren izaera sistemiko eta holistikoa kontuan hartuta, atribuzio eta kausalitate arazoak egon daitezke.
- Datu serie longitudinalak osatzeko zailtasunak.
- Amaitu gabeko lana (ebidentzia berrien bila gabiltza).

ETORKIZUNeko IKERKETA-ILDOAK:

- Bi industria-hiri gehiago aztertu (Barakaldo eta Arrasate) eta kasu azterketa konparatibo bat eratzekotan gara.



ESKERRIK ANITZ

 MILA ESKER

Esker anitz

ESKERRIK ASKO

Mil-esker

Esker mila

PICCOLLAGE